

ITZULPEN-ZERBITZU TELEFONIKOA

AT & T etxeak itzulpen-zerbitzu telefoniko bat jarri du martxan Estatu Batuetan, ingelesik ez dakitenek ingelesez mintzatzen den edonorekin komunika daitezzen.

AT & T *Language Line* izeneko zerbitzu hau eguneko 24 orduetan dago martxan eta 143 hizkuntza eta dialekto interpreta ditzake. Zerbitzu honetara konektatu ahal izateko zenbaki konkretu bat markatu behar da. Deia doan da eta erabiltzailea segundo gutxi batzuetan konektatzen da interpretatzailearekin.



Zerbitzu honek bi norantzatan funtzionatzen du: hots, beste hizkuntza batetik ingelesera itzuliz, edota alderantziz, ingelesetik beste hizkuntza batera itzuliz. Honez gain, zerbitzuak idatzizko materiala ere itzul dezake erabiltzaileak hori nahi izanez gero.

AT & T etxearen aurrikuspenetan espainiera, japoniera, errusiera, alemana, italiara eta grekoa dira zerbitzu honetan gehien erabiliko diren hizkuntzak. Gutxien erabiliko direnak berriz, armeniera, siouxera, errumaniera, punjabiera, tuiera eta wuxinesera, nahiz eta hauentzat ere interpretatzailearik egongo den.

MECA SPEED: MEKANOGRAFIA ORDENADORE BIDEZ

MECA SPEED 2000 idazmakina batean idazten ikasteko, mekanografi maila hobetzeko edota zenbait azterketatan hautagaien ebaluaketan laguntzeko programa da.

Programa tutore elektronikoko baten kontrolpean garatuz doa. Sistema ikuskor hau, erabiltzaileari beso eta eskuen posizio egokia, teklen kokapena eta behatz bakoitzari dagozkion tekla adieraziko dizkion ikasgai-multzo praktiko batez osaturik dago.


Teklatuaren ezagupena eta idazteko abiadura progresiboki bizkortzeko eran mailakatuta dauden 12



ikasgaiz osatzen da. Lehen ikasketa-fasearen ondoren bi atal daude: lehena, 2800 hitz dituen hiztegi batekin praktikatzeko eta bigarrena testuekin praktikatzeko. Sistema txosten bat burutzeko gai da, lortutako abiadura, egindako akatsak etab.en berri emanez.

MULTIMEDIA MACINTOSH INGURUAN

Azkenaldi honetan askotan entzun den hitza dugu "Multimedia". Aplikazio bakar batean informazio-mota desberdinak (audio, bideo, testu eta grafikoak) konbinatzeko posibilitatea eskaintzen duen software eta hardwarea da Multimedia.



P-Ingenierie etxeak Macromind programa plazaratu berri du Multimedia-arloan Appel Macintosh-entzat. *Macromind Director*ekin pelikula eta aurkezpen bikainak egin daitezke. Horretarako bideo-imajinak, soinua eta ordenadore bidez egindako edota scanner bidez inportatutako 2 edo 3 dimentsioko grafikoak erabil daitezke. Denbora errealezko animazioak ere egin daitezke pakete honekin.

Macromind Directorek bi zati nagusi ditu: Estudioa eta muntai lantegiak. Gehienez 24 objektu erabil daitezke eszena batean. Soinua MIDI interface batez sar daiteke. Honez gain, lau pista gehigarri ditu: soinu, paleta, trantsizio eta kadentziarentzat. Programak, *Player Hypercard* bat, *Quickdraw*ko erremintak, kolore-ziklo programagarria eta kolore-paletak sortu eta aldatzeko posibilitatea ditu besteak beste.

Fabrikatzailearen eritziz *Macromind* komunikazio eta hezkuntzako profesionalentzako programa da. Paketareen prezioa 135000 pta.koa da. Hardware aldetik behar duen konfigurazioa ondokoa da: 6.02 (edo ondorengo) sistema eta 1 Mb-eko memoria (zuri-beltzean) edo 3 Mb-eko memoria (koloretan) duen Macintosh (Plus-etik IICx-era).

CASIO SF-7500: AGENDA DIGITAL ERAMANGARRIA

Casio SF-7500 agenda digital berriak 148 g pisatzen ditu eta poltsikoan eraman ahal izateko moduan diseinaturik dago. 64 Kb-eko memori ahalmena du eta memoria honek, telefono-zenbakien katalogo pertsonala eta tarjeta eta oharren liburutegi osoa gordetzeko aukera ematen du. Agendaz gain, erlojua eta egutegia ere badituela aipatu behar da.



Datuen sarrera, edizioa eta ezabaketa menu-sistema bidez eragiten da. Datuak, negozio-tarjeta formatuan (Business Card), telefono-katalogoan edo (Memo) agendan gorde daitezke.

Agenda pertsonala kontsultatzeko ondoko era desberdinak eskaintzen ditu <<Schedule keeper>> sistemak: hilabetea, eguna edo data eta ordu zehatza. Bestalde, agendako zita bakoitzari alarma eslei dakiok. Horrela, zita-orduan alarmak jo egingo du, nahiz eta agenda itzalita egon, eta zitaren zehaztasunak agertuko ditu pantailan.

Aipatutakoaz gain baditu ondoko ezaugarriak ere: 127 hiritako orduak, 1901etik 2099. urterainoko egutegia, SF-7500 agenda pertsonalaren eta PC/AT bateragarri edota PS/2 baten arteko datu-komunikazio efikaza eta datu konfidentzialak babesteko kode sekretua.

IBM-REN MAHAIGAINERAKO LASER INPRIMAGAILUA

IBM 4019 LaserPrinter inprimagailua iragarri du IBM etxeak. Inprimagailu hau bulego eta gestioko profesionalengan pentsatuz diseinatu da. Horretarako azkartasuna, moldagarritasuna, trinkotasuna eta kalitatea hartu dira kontutan.



IBM 4019 LaserPrinter inprimagailuak 10 testu-orri minutuko eta kalitate handiko grafikoak inprima ditzake. Beraz, gutunak, kartazalak, orri elektronikoak eta autoedizioko lanak txukun aurkezteko egokia dela esan dezakegu.

Merkatuan antzeko ezaugarriak dituzten inprimagailuekin konparatuz, gutxi gorabehera pieza-kopurua erdira jaitsi duela (400 baino gutxiago), %25 azkarrago dela, letra-moten aukera handiagoa eskaintzen duela, leku gutxiago hartzen duela eta arinagoa dela esan behar.

IBM 4019 LaserPrinter inprimagailuak 300 puntu hazbeteko bereizmena eskaintzen du eta inprimatzeko eta dokumentuak tartekatzeo aukera desberdinak ematen. Papera manipulatzeko posibilitatea ere uzten du; hala nola, sekuentzian automatikoki inprimatzeko eta orri bat baino gehiagoko gutuna eta honi dagokion kartazala tartekatzeo aukerak eskainiz. Plotter modura ere erabil daiteke.

10 karaktere-jokoz hornitzen da inprimagailua. Eta huez gain, 47 tarjeta eskaintzen dira aukeran. Hauetako bakoitzak berriz, 26 letra-estilo eta 12 karaktere-motako paketeak ditu eta ordenadore pertsonal batetik karga daitezke.

Ondoko inprimagailuak emulatzen ditu: IBMren *Personal Printer Data Stream* (PPDS), Hewlett-Packard-en *LaserJet II*. seriarentzat *Printer Command Language* (PCL) eta IBM edo Hewlett-Packard-en *Graphics Language* (GL).

IBM-ren erdi- eta goi-mailako bulego-sistemetara edota ordenadore pertsonaletara konekta daiteke laser inprimagailu hau. DOS sistema eragilearekin (2.1 bertsiotik aurrera) eta OS/2 edizio standard edo anpliatuarekin (1.1 bertsiotik aurrera) funtzionatzen du. *IBM 4019 LaserPrinter* inprimagailuaren prezioa 392.000 pta.koa da. ■